

Areatzan ipiniko da martxan Aiko taldearen Danspirenaika ekimena

begitu.eus/areatza/1653041593863-areatza-ipiniko-da-martxan-aiko-taldearen-danspirenaika-ekimena

asierabrisketa@begitu.eus



Astegoien honetan hasiko da Pirinioak zeharkatuko dauzan musika eta jantza tradizionalen inguruko ikastaro, berbaldi eta jaien zikloa.

Aiko taldeak **Areatzatik hasi eta Pirinioen luzeeran zehar** hainbat geldialdi egingo dauz udan zehar, **musika eta jantza tradizionalen** inguruko Danspirenaika proiektuagaz. **Areatzan, maiatzaren 21ean eta 22an egongo** dira. **Pilar Baca** Sevillako jantza espainiarreko eta flamenkoko irakasleak, **Larraitx Artetxe** Aikoko kideak, **Claude Iruretagoyena** lapurtarrak eta **Ines Uriarte** ondarrutarrak emongo ditue ikastaroak. Areatzan amaitu ostean, Jacara joango da Danspirenaika, garagarrilaren atzen astegoienean.

Ikastaro eta berbaldietan **parte hartzeako matrikuleak 50 euroko prezioa** dauka. Hau, 634 423 539 whatsappera edo aiko@aikotaldea.eus helbide elektronikora idatzita egin daiteke.

Egitaraua

Maiatzak 21, zapatua

- **16:30ean**, Danspirenaikaren ondoetorria eta aurkezpena

- **17:00etan**, *Euskal jota eta buleria, konpasa partekatzen* ikastaroa Sevillako Pilar Bacaren eskutik
- **18:30ean**, Aiko taldeko Larraitz Artxeren ikastaroa *Joteagaz olgetan Arratian* Klaratarren komentuan, 20:00etan, jantzapoteoa Aiko taldeagaz Gudarien plazan hasita.

Maiatzak 22, domekea

- **10:00etan**, Miarritzeko Maritzuli konpainiaren ikastaroa *Jauzika Pirinioetan*
- **11:30ean**, Ondarruko Ines Uriarteren ikastaroa *Bikotean gidatzearen oinarrizko kontzeptuak* Klaratarren komentuan.

kultura Areatza

Egin zaitetz Begitu-lagun!

Begitu da Arratiako euskerazko aldizkari bakarra, eta zu bezalako irakurleen babes behar dau aurrera egiteko. Zeuk be gugaz bat egin gura dozu?

Izan zaitetz Begitu-lagun!